



Munduko Euskal Etxetako lagun agurgarriak:

Berriz ere, eta oraingoan bigarrenagoz, hurbil dugu irailaren 8a: Euskal Diasporaren Nazioarteko Eguna. Iazko ospakizuna arrakasta biribila izan zen, eta zuetako askoren partaidetza izugarria izan zen lau puntu kardinaletan.

18 herrialdetako euskaldunak, 60 Euskal Etxeren inplikazioarekin, egun berean nola mobilizatu ziren ikustea miresgarria izan zen.

Aurten, berriz ere, irailaren 8a hurbil dugula ikusita, halako egun garrantzitsuaren ospakizunean aktiboki parte hartzera animatu nahi zaituztet, berriz ere fronte komun batean elkartzeko aukera izan dezagun, euskaldunon emigrazioa hainbat modutara ospatuta.

Zuen proposamenak eta proiektuak helaraztea gustatuko litzaiguke, guztion artean, auzolanean, irailaren 8a, Euskal Diasporaren Eguna, egun gogoangarria izan dadin mundu osoan barrena banatuta dauden euskaldun guztientzat, eta munduko euskaldunen mobilizazio hori ikusgarri egingo duen munduko ekitaldien agenda bat osa dezagun elkarrekin.

Beraz, honako helbide elektroniko honetan Euskal Diasporaren Eguna nola ospatu nahi duzen jakinaraztea espero dugu:

euskaletxeak@euskadi.eus

Eskerrik asko eta laster arte lagun maiteak, mundu zabaleko euskaldunak!

Gorka Álvarez Aranburu
Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria